EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

LEHENDAKARITZA
PRESIDENCIA

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
IRTEERA - SALIDA
2010 MAR. MAR. - 1
Nº 5079 ZK.
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

Jaun agurgarria:

Eusko Legebiltzarrak, 2010eko otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran, 34/2010 Legez besteko Proposamena onetsi zuen, etxeko langileei buruz, honekin batera doakizun testuaren arabera. (09\11\02\01\0173)

Horren berri ematen dizut, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 26a

Excelentísimo señor:

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 25 de febrero de 2010, aprobó la Proposición no de Ley 34/2010, sobre las empleadas del hogar, con arreglo al texto del anexo adjunto. (09\11\02\01\0173)

Lo que le comunico a los efectos oportunos.

Vitoria-Gasteiz, 26 de febrero de 2010

EUSKO LEGEBILTZARRA PARLAMENTO VASCO VITORIA-GASTEIZ

Arantza Quiroga Cia

JOSÉ LUIS RODRÍGUEZ ZAPATERO jn. t. g.
Gobernuko presidentea

Excmo. Sr. D. JOSÉ LUIS RODRÍGUEZ ZAPATERO
Presidente del Gobierno

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
IRTEERA - SALIDA
2010 MAR. MAR. - 1
Nº 5079 ZK.
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

NIK, JESÚS LOZA AGUIRREK, EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIKO LEHEN IDAZKARI NAIZEN HONEK,

ZIURTATZEN DUT

Eusko Legebiltzarrak, 2010eko otsailaren 25ean egindako osoko bilkuran, 34/2010 Legez besteko Proposamena onetsi duela, etxeko langileei buruz, ondoko testuaren arabera:

"1. Eusko Legebiltzarrak 2007ko martxoaren 15eko osoko bilkuran etxeko langileei buruz hartutako erabakia berretsi egiten du, eta Espainiako Gobernuari eskatzen dio:

a) Toledoko Itunaren gomendioei jarraituz, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sar ditzala gaur egun etxeko langileen erregimen berezian dauden pertsona guztiak, euren eskubideak eta gizarte-babesa modu nabarmenean hobetzeko.

b) Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak kontrola eta iker dezala lanpostu-agentzien jarduera etxeko langileen sektorean.

c) Ekin diezaiola, 2010ean zehar, etxeko langileen lan-kontratuak, lanetik kaleratzeko baldintzak eta lanaldia hobetzeari eta, oro har, etxeko langileek Gizarte Segurantzarekin duten erlazioa hobetzeari.

2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

a) Egin dezala etxeko langileek Euskadin duten egoerari buruzko azterlan espezifiko bat.

b) Enplegu-politika aktiboen transferentzia gauzatzen denean, bultza dadila enplegu-zerbitzu publikoen bitartekaritza etxeko langileen arloan; enplegatuei eta enplegatzaileei jakinaraz diezazkiela kontratuko eskubide eta betebeharrak,

JESÚS LOZA AGUIRRE, SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO,

CERTIFICO

Que el Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 25 de febrero de 2010, ha aprobado la Proposición no de Ley 34/2010, sobre las empleadas del hogar, con arreglo al siguiente texto:

"1. El Parlamento Vasco ratifica el acuerdo adoptado en la sesión plenaria de 15 de marzo de 2007 en relación con las empleadas de hogar, e insta al Gobierno de España a que:

a) Atendiendo a las recomendaciones del Pacto de Toledo, integre en el régimen general de la Seguridad Social a todas aquellas personas que están actualmente en el régimen especial de las empleadas de hogar, de cara a mejorar sustancialmente sus derechos y protección social.

b) La Inspección de Trabajo y Seguridad Social controle e investigue la actividad de las agencias de colocación en el sector de las empleadas de hogar.

c) A lo largo de 2010 aborde mejoras en lo relacionado con el contrato de trabajo, las condiciones de despido, la jornada laboral y, en general, las relaciones con la Seguridad Social de las empleadas de hogar.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que:

a) Elabore un estudio específico sobre la situación de las empleadas de hogar en Euskadi.

b) Al materializarse la transferencia de las políticas activas de empleo, se impulse la intermediación de los servicios públicos de empleo en el empleo doméstico; difunda entre empleadas y empleadores sus derechos y obligaciones

eta azter dezala etxeko langileen arloan ezkutuko ekonomia azaleratzeko neurriak hartzeko aukera".

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten dut Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2010eko otsailaren 25ean.

contractuales, y analice la aplicación de medidas que permitan aflorar la economía sumergida en el sector doméstico".

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, expido la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 2010.

Ontzat emana
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA
Visto bueno
LA PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO

Arantza Quiroga Cia

MAHAIKO LEHEN IDAZKARIA
EL SECRETARIO PRIMERO DE LA MESA

Jesús Loza Aguirre